

Txostena

Informe

**2019ko maiatzaren 26ko
Batzar Nagusietarako
Hauteskundeak.
Hauteskunde-kontabilitatea**

**Elecciones a Juntas Generales
26 de mayo de 2019.
Contabilidad Electoral**



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	5
SARRERA.....	7
I. ONDORIOAK.....	10
I.1 LANAREN ZABALARI MUGAK	10
I.2 LEGERIA BETETZEA.....	10
I.3 DIRULAGUNTZA PROPOSAMENA.....	10
II. GOMENDIOAK.....	12
III. DIRULAGUNTZAK ETA GASTUEN MUGA.....	13
III.1 HAUTESKUNDEEN EMAITZAK ETA GEHIENEZKO DIRULAGUNTZA	13
III.2 GASTUEN GEHIENEZKO MUGA	14
III.3 JASOTAKO AURRERAKINAK	15
IV. HAUTESKUNDE-KONTUAK.....	16
IV.1 EUZKO ALDERDI JELTZALEA	17
IV.2 EUSKAL HERRIA BILDU	18
IV.3 EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE).....	20
IV.4 ELKARREKIN PODEMOS	21
IV.5 ALDERDI POPULARRA	23
ALEGAZIOAK	25



ABREVIATURAS	27
INTRODUCCIÓN.....	29
I. CONCLUSIONES	31
I.1 LIMITACIONES AL ALCANCE DEL TRABAJO.....	31
I.2 CUMPLIMIENTO DE LA LEGISLACIÓN.....	31
I.3 PROPUESTA DE SUBVENCIÓN	31
II. RECOMENDACIONES.....	33
III. SUBVENCIONES Y LÍMITE DE GASTOS.....	34
III.1 RESULTADOS ELECTORALES Y SUBVENCIÓN MÁXIMA	34
III.2 LÍMITE MÁXIMO DE GASTOS	35
III.3 ADELANTOS RECIBIDOS	36
IV. CUENTAS ELECTORALES	37
IV.1 EUZKO ALDERDI JELTZALEA - PARTIDO NACIONALISTA VASCO	38
IV.2 EUSKAL HERRIA BILDU.....	39
IV.3 PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE)	41
IV.4 ELKARREKIN PODEMOS	42
IV.5 PARTIDO POPULAR	44
ALEGACIONES	45

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 28a
Vitoria-Gasteiz, a 28 de noviembre de 2019



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

- 21/2019 FD 21/2019 Foru Dekretua, apirilaren 9ko Diputatuen Kontseiluarena, Arabako Batzar Nagusietarako azken hauteskundeetan ordezkariak eskuratu zuten eta 2019ko Batzar Nagusietarako hurrengo hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi politiko, federazio, koalizio edo hauteskunde-taldeei hauteskunde gastuetarako aurrerakinak ematen dizkiena.
- AFA Arabako Foru Aldundia.
- BFA Bizkaiko Foru Aldundia.
- GFA Gipuzkoako Foru Aldundia.
- BEZ Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
- BNHL Martxoaren 27ko 1/1987 Legea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietako hauteskundeei buruzkoa.
- LOREG 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Estatuko Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzkoa.
- APEKP Alderdi Politikoei Egokitutako Kontabilitate Plana eta martxoaren 30eko 3/2015 Lege Organikoari, alderdi politikoaren ekonomia eta finantza jardueraren kontrolari buruzkoa, Kontuen Epaitegiaren Osoko Bilkurak 2018ko abenduaren 28an onartutakoa.
- HKEE Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.



SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako Batzar Nagusietarako 2019ko maiatzaren 26an egindako azken hauteskundeetan jarlekua eskuratu zuten talde politikoen sarrera eta gastuen kontabilitatea aztertu du.

Fiskalizazioak indarreko arautegiari jarraiki, honako alderdi hauek egiaztatzea izan du helburu:

1. Kontabilitatea epean aurkeztu da eta Estatuko Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 133.1 eta 121.2 artikuluetan aurreikusten diren printzipioak betez.
2. Alderdi politikoen justifikatutako kobrantza eta ordainketa guztiak Hauteskunde Batzordeari jakinarazitako kontu korronteen bitartez egin dira eta Estatuko Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 124 eta 125.1 artikuluetan jasotako zehaztapenen arabera.
3. Pertsona fisiko edo juridikoen egindako ekarpenak egoki identifikatuak daude Estatuko Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 126. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Lege bereko 129. artikuluko mugaketak betetzen dituzte.
4. Hauteskunde-kontu korronteetara ondoko erakunde hauetatik fondoak ekartzeko debekua errespetatu da: zeinahi administrazio edo erakunde publikotatik; erakunde autonomo edo estatuaz besteko entitateetatik; jabetza Estatuak, autonomia erkidegoek, probintziak edo udalak duten sektore publikoko enpresetatik; ekonomia mistoa duten enpresetatik; baita, indarreko kontratu bitartez, administrazio publikoren batentzat zerbitzu eman edo hornidura edo lanak egiten dituzten enpresetatik (Estatuko Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 128. artikulua).
5. Foru aldundiek alderdi politikoei, federazioari eta koalizioari emandako aurrerakinen zenbatekoak Estatuko Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 127 bis artikuluan finkatutako gehiengo mugak betetzen ditu.
6. Egindako gastuak arautegiak zehaztutako kontzepturen bati dagozkio, hauteskundeak deitu eta hautetsien izendapena gauzatu bitarteko aldiaren egin dira eta euskarrituak daude, kontularitza, merkataritza eta fiskalaritzako printzipio eta arauak agintzen dituzten gutxienezko betekizunak gordetzen dituztela (Estatuko Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 130. artikulua).
7. Gastu guztiak hauteskunde kanpaina amaitu eta ondorengo 90 egunetan ordaindu dituzte (Estatuko Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 125.3 artikulua).
8. Estatuko Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 131.1 eta 58. artikuluetan finkatutako gastuen gehienezko mugak gorde dira.



Hauteskunde prozesu honi ezargarria zaion legedia honako hau da:

- Martxoaren 27ko 1/1987 Legea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietako hauteskundeetarako buruzkoa (BNHL).
- 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskundearen Araubide Orokorren buruzkoa (LOREG).
- Arabako Diputatu Nagusiaren 142/2019 Foru Dekretua, apirilaren 1ekoa, Araba Batzar Nagusietarako hauteskundeak deitzen dituena.
- Arabako Diputatu Nagusiaren 36/2019 Foru Dekretua, apirilaren 1ekoa, Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskundeak deitzen dituena.
- 1/2019 Foru Dekretua, apirilaren 1ekoa, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeak deitzen dituena.
- Ogasun Ministerioaren 394/2019 Agindua, apirilaren 3koa, 2019ko maiatzaren 26ko Europako Legebiltzarrerako eta udal hauteskundeetarako hauteskunde jardueren kontzeptuan sortutako gastuetarako dirulaguntzen kopuru gaurkotuak finkatzen dituena.
- 2016ko abuztuaren 8ko Agindua, Ogasun eta Finantza sailburuarena, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako kopuruak gaurkotzei buruzkoa.
- 21/2019 Foru Dekretua, apirilaren 9ko Diputatuen Kontseiluarena, Arabako Batzar Nagusietarako azken hauteskundeetan ordezkariak eskuratu zuten eta 2019ko Batzar Nagusietarako hurrengo hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi politiko, federazio, koalizio edo hauteskunde-taldeei hauteskunde gastuetarako aurrerakinak ematen dizkiena.
- 35/2019 Foru Dekretua, uztailaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena, hauteskunde gastuen kontzeptuko dirulaguntza eta aurrerakinaren erregimena onartzen duena, 2019ko maiatzaren 26ko Arabako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan eskuratutako emaitzen arabera.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 2ko 31/2019 Foru Dekretua, hauteskunde-gastuetarako dirulaguntzen emakida arautzen duena, 2019ko maiatzaren 26ko Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi politiko, federazio, koalizio edo hauteskunde-taldeei dagokiena.
- 519/2019 Foru Agindua, irailaren 16koa, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatuarena, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Batzar Nagusietarako hauteskundeetara aurkeztu diren alderdi politiko, federazio eta koalizioei dirulaguntzak emateari buruzkoa.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Honen guztiaren arabera, 2019ko maiatzaren 26ko Lurralde Historikoen Batzar Nagusietarako hauteskundeetan hautagaitzak aurkeztu eta ordezkaritza eskuratu duten alderdi politikoek egindako gastuak egiaztatzeko txosten hau egin dugu; hona hemen gastuak:

Alderdi politikoa	Siglak
Eusko Alderdi Jeltzalea	EAJ-PNV
Euskal Herria Bildu	EH Bildu
Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra (PSOE)	PSE-EE (PSOE)
Elkarrekin Podemos	Podemos-Ahal dugu/Ezker Anitza-Izquierda Unida/EQUO berdeak
Alderdi Popularra	PP



I. ONDORIOAK

I.1 LANAREN ZABALARI MUGAK

Hona hemen lanak izan dituen mugaketak:

- Udal hauteskundeetan, Europako eta alderdi politikoen kontabilitatearen fiskalizazioa egitea Kontuen Epaitegiari dagokio; hori dela eta, Batzar Nagusietarako hauteskunde hauei dagozkien gastuak alderdien kontabilitatean barne hartu izana ez du Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak egiaztatu eta horiek gastuaren legezko mugak gainditu araz litzakete.
- HKEEK ez du aztertu aurkeztutako kontabilitatez beste edota dagozkien Hauteskunde Batzorde Probintzialei jakinarazitako hauteskunde-kontu korronteez beste ba ote dagoen erregistratutako ordainketa eta kobrantzarik.

I.2 LEGERIA BETETZEA

- 2019ko maiatzaren 26ko Batzar Nagusietako hauteskundeetara aurkeztutako alderdi politikoen eta hauteskunde-koalizioak zuzentasunez bete dute indarreko legeria hauteskunde-gastu eta -finantzaketa gaietan; halaber, ez dituzte gastuetarako finkatutako mugak gainditu eta HKEEK fiskalizatzeko hauteskunde-kontabilitatea Legeak agindutako epearen barruan aurkeztu dute.

I.3 DIRULAGUNTZA PROPOSAMENA

- Hauteskunde gastuen dirulaguntza lurralde historiko bakoitzaren aurrekontuen kargura egiten da, Batzar Nagusietako Hauteskundearen Legearen 11. artikuluari jarraiki. Dirulaguntza ez da inola ere justifikatutako gastuak baino handiagoa izango, eta hauek ere ezingo dute gastuen gehieneko muga gainditu. Horren arabera, hauteskunde kontabilitatea aurkeztu den datan dirulaguntzen hauteskunde aurreko aurrerapena soilik jaso dela aintzat hartuta, alderdi politiko, federazio eta koalizio bakoitzak jasotzeko duen dirulaguntza honako hau da:



ARABAKO LH					Euroak
Hautagaitza	Gehienezko dirulaguntza	Diruz lagungarri diren gastuak	Dirulaguntza aplikagarria	Hautesk. aurr. aurrerapena	Zor saldoa
EAJ-PNV.....	207.731,36	112.943,36	112.943,36	47.370,77	65.572,59
EH BILDU	146.792,28	135.119,69	135.119,69	40.625,70	94.493,99
PSE-EE (PSOE)	122.436,52	122.436,52	122.436,52	18.416,18	104.020,34
ELKARREKIN PODEMOS	49.758,04	100.947,11	49.758,04	33.555,01	16.203,03
PP.....	98.178,50	137.746,36	98.178,50	44.050,48	54.128,02
GUZTIRA	624.896,70	609.193,04	518.436,11	184.018,14	334.417,97

BIZKAIKO LH					Euros
Hautagaitza	Gehienezko dirulaguntza	Diruz lagungarri diren gastuak	Dirulaguntza aplikagarria	Hautesk. aurr. aurrerapena	Zor saldoa
EAJ-PNV.....	405.726,16	327.857,73	327.857,73	95.961,02	231.896,71
EH BILDU	170.116,36	166.350,32	166.350,32	52.590,85	113.759,47
PSE-EE (PSOE)	138.370,70	138.370,16	138.370,16	33.875,46	104.494,70
ELKARREKIN PODEMOS	97.940,76	182.628,85	97.940,76	12.751,85	85.188,91
PP.....	35.648,24	64.737,34	35.648,24	19.333,48	16.314,76
GUZTIRA	847.802,22	879.944,40	766.167,21	214.512,66	551.654,55

GIPUZKOAKO LH					Euros
Hautagaitza	Gehienezko dirulaguntza	Diruz lagungarri diren gastuak	Dirulaguntza aplikagarria	Hautesk. aurr. aurrerapena	Zor saldoa
EAJ-PNV.....	284.728,28	235.338,96	235.338,96	62.628,80	172.710,16
EH BILDU	244.708,94	251.481,04	244.708,94	71.302,94	173.406,00
PSE-EE (PSOE)	130.258,62	228.386,44	130.258,62	36.494,52	93.764,10
ELKARREKIN PODEMOS	58.022,74	127.263,39	58.022,74	5.475,36	52.547,38
PP.....	15.919,54	19.526,63	15.919,54	4.894,61	11.024,93
GUZTIRA	733.638,12	861.996,46	684.248,80	180.796,23	503.452,57

Gehienezko dirulaguntzaren kalkulua III.1 atalean dago zehaztua; diruz lagungarri diren gastuak IV. atalean eta jasotako aurrerakinak txosten honetako III.3 atalean.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. GOMENDIOAK

- Martxoaren 27ko 1/1987 Legeak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako Batzar Nagusietarako hauteskundeei buruzkoak, artikulua bakar bat eskaintzen dio hauteskunde-gastuen finantzaketa publikoari; bertan bakar-bakarrik zehazten da ordezkariak eskuratzen duten alderdi edo koalizioek jaso behar duten dirulaguntza.

Arauketa eskas honen ondorioz, beharrezkoa da Estatuko Hauteskundearen Araubide Orokorriari buruzko Lege Organikora jotzea, ordezkari arau modura erabiliz eta hauteskunde hauek udal hauteskundeekin bateratuz, bere garaian Hauteskunde Batzorde Nagusiak emandako interpretazioaren arabera.

Lurralde historikoen Batzar Nagusietarako hauteskundeei buruzko egungo Legea osatu egin beharko litzateke eta ondoko atal hauek barne hartu:

- Hauteskundeetan esku hartu duten alderdi politikoaren hauteskunde-kontabilitatearen fiskalizazioa egiteko berariaz agintzea Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari.
 - Alderdi eta koalizio parte hartzaileek egin ditzaketen hauteskunde-gastuei ezargariak zaizkien mugaketak.
 - Udal hauteskundeek eta Batzar Nagusiek komunean dituzten gastuak banatzeko baliabideak, beti batera gauzatzen diren prozesuak izanik.
 - Lurralde historikoen arabera bereizitako kontuak aurkezteko betekizunak eta kasua balitz, gastu komunak jasotzeko irizpideak.
- PSOE-EE (PSOE) eta PPK hauteskundeetako aurrerakinak kobratutako zenbatekoarekin erregistratu dituzte, kobratutakoa baino 342,59 euro eta 268,79 euro txikiagoa dena hurrenez hurren, bi udalen aldeko aurretiko sarreraren atxikipenengatik. Atxikipen hauek erregistratzeko alderdiko ekarpenengatik kontu hartzekodun arrunt ez bankukoak murriztu behar ziratekeen.
 - Elkarrekin Podemosek hauteskunde kontu bateratua ireki du hiru lurralde historikoetan eta Araba eta Gipuzkoako Probintziako Hauteskunde Batzordeei jakinarazi dio; ez ordea, Bizkaiko Probintziako Hauteskunde Batzordeari.
 - AFAk dirulaguntzaren hauteskunde aurretiko aurrerapena emateko kalkulatu du alderdi politiko bakoitzeko gehieneko dirulaguntzaren % 30, 2015eko Batzar Nagusietarako hauteskundeetan eskuratutako emaitzen arabera; ordea, LOREGek (127 bis artikulua) eta 21/2019 FDK agintzen dute inola ere ez dela izango hauteskunde horietan jasotako dirulaguntzaren % 30 baino handiagoa. AFAk EAJri eta Elkarrekin Podemosi ordaindutako kopurua indarreko araudiaren arabera legokiekeena baino 6.305,76 euro eta 27.672,43 euro handiagoa da, hurrenez hurren.

III. DIRULAGUNTZAK ETA GASTUEN MUGA

III.1 HAUTESKUNDEEN EMAITZAK ETA GEHIENEZKO DIRULAGUNTZA

Hona hemen eskualdeko hauteskunde batzordeek batzarkideak izendatzeko egindako akten arabera, alderdi politiko bakoitzak eskuratu dituen emaitzak lurralde historikoen arabera bereizita:

Hautagai zerrenda	Arabako LH		Bizkaiko LH		Gipuzkoako LH	
	Botoak	Batzarkideak	Botoak	Batzarkideak	Botoak	Batzarkideak
EAJ-PNV	47.686	17	255.754	25	130.802	20
EH Bildu	33.954	12	116.794	10	116.163	17
PSE-EE (PSOE)	30.555	10	97.653	8	62.807	9
ELKARREKIN PODEMOS	16.027	4	62.430	6	32.815	4
PP	24.256	8	39.197	2	17.284	1
BESTE BATZUK	8.151	-	16.362	-	4.287	-
GUZTIRA	160.629	51	588.190	51	364.158	51

Boto hauetatik dirulaguntza jasotzeko eskubidea soilik ematen dute gutxienez ordezkarit bat eskuratu duten barrutietako botoek. Arau honi jarraikiz, Batzar Nagusietan ordezkaritak eskuratu dituzten alderdi politikoei dagozkien ondoko boto hauek ez dira gogoan hartu ezgarriak diren gehienezko dirulaguntzen kalkuluan:

Hautagai zerrenda	Arabako LH	Bizkaiko LH	Gipuzkoako LH
PSE-EE (PSOE)	2.057	-	-
ELKARREKIN PODEMOS	3.177	-	4.660
PP	1.033	12.829	7.627

Batzar Nagusietako Hauteskunderi buruzko Legearen 11. artikulua aintzat hartuta, alderdi politiko, federazio edo koalizio bakoitzak eskura dezakeen gehienezko dirulaguntza boto bakoitzeko 0,54 euro da eta Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan eskuratutako eserleku bakoitzerako finkatutako zenbatekoaren % 40, batzarkide bakoitzeko 26.761,89 euro egiten dituen, Ogasun eta Finantzen Sailburuaren 2016ko abuztuaren 8ko Aginduaren arabera, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako kopuruak gaurkotzeari dagokionez.

	Euroak		
Alderdi politikoa	Arabako LH	Bizkaiko LH	Gipuzkoako LH
EAJ-PNV	207.731,36	405.726,16	284.728,28
EH BILDU	146.792,28	170.116,36	244.708,94
PSE-EE (PSOE)	122.436,52	138.370,70	130.258,62
ELKARREKIN PODEMOS	49.758,04	97.940,76	58.022,74
PP	98.178,50	35.648,24	15.919,54
GUZTIRA	624.896,70	847.802,22	733.638,12

III.2 GASTUEN GEHIENEZKO MUGA

Batzar Nagusietako Hauteskunderen Legeak ez du mugarik ezartzen hautagaitzak aurkeztu dituzten alderdi politikoei hauteskundeetan egin ditzaketen gastuei dagokienez.

Alabaina, Estatuko Hauteskunderen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoak 131. artikuluan agintzen du hauteskunde orok muga bat duela eta baterako muga dagoela bi hauteskunde edo gehiago batera egokituz gero.

131.1 artikulua ezartzen duen mugaketari dagokionez, Hauteskunde Batzorde Nagusiaren 2007ko urriaren 25eko erabakiak agintzen du hauteskunde-gastuen muga bakarra eta bateratua dela hiru lurraldeetarako, hauteskunde-prozesuak duen batasun izaeraren ondorioz.

131.2 artikulua baterako mugari dagokionez, Hauteskunde Batzorde Nagusiaren 2019ko otsailaren 18ko Jarraibideak agintzen du muga hau ez zaiela ezargarria lurralde historikoetako Batzar Nagusietako hauteskunderi, modu berezian arautuak baitaude eta organo ezberdinek fiskalizatzen baitituzte.

Aurrekoaren ondorioz eta LOREGen 193.2 artikuluetan agindutakoari jarraikiz, alderdiek, federazioak eta koalizioak egin dezaketen gastua, Ogasun Ministerioaren 394/2019 Aginduak eguneratutako zenbatekoen arabera, biztanleko 0,11 eurora dago mugatua, gehi 150.301,11 euroren kopuru finko bat Lurraldeko barrutietatik erdietan baino gehiagotan aurkeztuz gero; horretarako, onartutako azken errolda hartzen da, 2018ko urtarrilaren 1ekoa, alegia. Honez gain, alderdiek, federazioak eta koalizioek gehienezko muga horren % 20 baizik ez dezakete gastatu prentsa-irratietako publizitatean.

Segun alderdi politiko, federazio edo koalizio bakoitza zein eremu geografikotan aurkeztu den, hauteskunde hauei ezargarriak zaizkien mugak honako hauek dira:

Euroak			
Lurralde Historikoa	Biztanleria	Gastu guztietarako muga	Prentsa-irratirako gastuen muga
ARABA	328.868	186.476,59	37.295,32
BIZKAIA	1.149.628	276.760,19	55.352,04
GIPUZKOA.....	720.592	229.566,23	45.913,25
EAE GUZTIRA	2.199.088	692.803,01	138.560,61

Hona hemen alderdi politiko bakoitzak egindako gastuak guztira:

Euroak						
Alderdi politikoa	Muga	Arabako LH	Bizkaiko LH	Gipuzkoako LH	Guztira	Soberakina
EAJ-PNV	692.803,01	112.943,36	327.857,73	235.338,96	676.140,05	(16.662,96)
EH BILDU.....	692.803,01	144.522,96	177.831,02	263.261,66	585.615,64	(107.187,37)
PSE-EE (PSOE).....	692.803,01	122.436,52	138.370,16	228.386,44	489.193,12	(203.609,89)
ELKARREKIN PODEMOS.	692.803,01	100.947,11	184.625,35	127.263,39	412.835,85	(279.967,16)
PP (*).....	692.803,01	137.949,64	64.737,34	19.526,63	222.213,61	(470.589,40)

(*) Arabako LHN prentsa eta irratian egindako publizitate gastuetan hauteskunde kontabilitatean jaso gabeko 203,28 euro barne hartu dira, hauteskundekoa ez den kontu batetik ordaindu direnak.

Gastuetarako gehieneko muga alderdi politikoek, federazioak eta hauteskunde-koalizioak egindakoekin alderatuz gero, horietako batek ere ez duela guztizko muga hori gainditu ikus daiteke.

Prentsa-irratietarako ezarritako mugari dagokionez, ez du inongo alderdi politiko, federazio eta hauteskunde-koaliziok muga gainditu.

III.3 JASOTAKO AURRERAKINAK

Alderdi politikoek, federazioak eta hauteskunde-koalizioak Batzar Nagusietarako aurreko hauteskundeetan jasotako dirulaguntzaren % 30eko aurrerakina eskatzeko eskubidea dute. Aurrerakin hori emateko aurretik eskaera egin behar da hauteskundearen deialdia egin osteko hogeita batgarren eta hogeita hirugarren egunen artean, hau da, 2019ko apirilaren 23 eta 25 bitartean.

Hauteskundeak egin ondoren hauteskundearen emaitzen arabera legokiekeen dirulaguntzaren % 90 arteko beste aurrerakin bat eska dezakete; horretarako, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari hauteskunde-kontabilitatea aurkeztu beharko diote; baita guztira jasotako dirulaguntzaren %10eko abala entregatu ere.

Alderdiei, federazioari eta koalizioei emandako hauteskunde aurreko aurrerakinak Aldundi bakoitzak emandako informazioaren arabera honako hauek izan dira:



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURRERAKINA			Euroak
Alderdi politikoa	AFA	BFA	GFA
EAJ-PNV	47.370,77	95.961,02	62.628,80
EH BILDU	40.625,70	52.590,85	71.302,94
PSE-EE (PSOE)	18.416,18	33.875,46	36.494,52
ELKARREKIN PODEMOS	33.555,01	12.751,85	5.475,36
PP	44.050,48	19.333,48	4.894,61
GUZTIRA	184.018,14	214.512,66	180.796,23

IV. HAUTESKUNDE-KONTUAK

Ondotik, Epaitegi honek berrikusi dituen alderdi, federazio eta koalizio bakoitzari dagozkion kontuak aurkeztuko ditugu. Hauteskunde-kontabilitatea 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera formulatu behar da Alderdi Politikoei Egokitutako Kontabilitate Planaren arabera (APEKP).

Txosten honetako tauletan baliabide modura jaso dira alderdi politikoei jasotako ekarpenak, APEKParen arabera hatzekodunetan erregistratu behar direnak; dirulaguntzek eragindako sarrerak, berriz, APEKParen arabera emaitzen kontuan kontabilizatu behar dira emandako zenbatekoarekin, kasu honetan lehenengo aurrerakinarekin. HKEEk sailkatu edo doitu egin ditu alderdi politikoei beste erregistro irizpide batzuk baliatuta aurkeztutako kontuak.

Diruz lagungarri ez diren gastuak aparteko kontzeptuan jaso dira eta dagozkion kontuen ondotik zerrendatu.

HKEEk birsailkatu egin ditu mugak dituzten kontu-sailtakoak diren gastuak.

Epaitegi honetan kontuen aurkezpen datak eta honenbestez, alderdi politiko, federazio edo hauteskunde-koalizio bakoitzaren kontabilitatean barne hartutako eragiketegi dagozkienak, honako hauek dira:

Alderdi, federazio edo koalizio politikoa	DATA
Euzko Alderdi Jeltzalea	27/09/2019
Euskal Herria Bildu -Araba	23/09/2019
Euskal Herria Bildu -Bizkaia	23/09/2019
Euskal Herria Bildu - Gipuzkoa	23/09/2019
Euskadiko Alderdi Sozialista - Euskadiko Ezkerra (PSOE) - Araba	23/09/2019
Euskadiko Alderdi Sozialista - Euskadiko Ezkerra (PSOE) - Bizkaia	17/09/2019
Euskadiko Alderdi Sozialista - Euskadiko Ezkerra (PSOE) - Gipuzkoa	23/09/2019
Elkarrekin Podemos - Araba	23/09/2019
Elkarrekin Podemos - Bizkaia	23/09/2019
Elkarrekin Podemos - Gipuzkoa	23/09/2019
Alderdi Popularra - Araba	27/09/2019
Alderdi Popularra - Bizkaia	27/09/2019
Alderdi Popularra - Gipuzkoa	27/09/2019



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.1 EUSKO ALDERDI JELTZALEA

EAJ/PNV alderdiak hiru Lurralde Historikoetan aurkeztu du hautagaitza, hauteskunde-barruti guztietan.

Kontabilitatea modu bateratuan aurkezten da, gerora lurralde bakoitzari dagokiona egozten zaiolarik.

		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Errentamenduak	1.531,25	Dirulaguntzaren aurrerakina	205.960,59
Zerbitzu profesional independenteak	3.474,52	Alderdiaren ekarpena	480.000,00
Garraioak	253,00		
Publizitatea prentsa-irratian	131.792,14		
Kanpoko publizitatea	95.092,28		
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	109.844,69		
Bestelako zerbitzuak	41.324,43		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak	292.827,74		
GASTUAK GUZTIRA	676.140,05	BALIABIDEAK GUZTIRA	685.960,59
Diruzaintza	9.820,54		
GUZTIRA	685.960,59	GUZTIRA	685.960,59

Alderdiak Lurralde Historikoen arabera egin du gastu banaketa eta horretarako, lurralde bakoitzari zegozkion gastu propioak egotzi dizkio eta guztiei zegozkien datuak, berriz, kasu batzuetan hautesle kopuruaren arabera banatu ditu eta beste batzuetan, komunikazio-estrategien arabera:

		Euroak
Lurralde historikoa		Zenbat.
Araba.....		112.943,36
Bizkaia		327.857,73
Gipuzkoa		235.338,96
GUZTIRA		676.140,05



IV.2 EUSKAL HERRIA BILDU

EH Bildu hiru Lurralde Historikoetan aurkeztu da, hauteskunde-barruti guztietan eta lurralde bakoitzeko kontabilitate berezia aurkeztu du.

Arabako LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Errentamenduak	13.772,16	Dirulaguntzaren aurrerakina	40.625,70
Zerbitzu profesional independenteak	755,33	Alderdiaren ekarpena	110.000,00
Banku zerbitzuak eta antzekoak	64,62		
Publizitatea prentsa-irratian	17.991,61		
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	81.373,27		
Bestelako zerbitzuak.....	21.162,70		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK GUZTIRA	135.119,69	BALIABIDEAK GUZTIRA	150.625,70
Gastu ez subentzionagarriak.....	9.403,27		
GASTUAK GUZTIRA	144.522,96	BALIABIDEAK GUZTIRA	150.625,70
Diruzaintza	6.102,74		
GUZTIRA	150.625,70	GUZTIRA	150.625,70

Prentsa-irratietan publizitate gastuetan 1.687,95 euro murriztu dira eta 7.715,32 euro beste propaganda eta publizitate batenak, udal hauteskundeetakoak direnak.

BIZKAIKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Langileria ez iraunkorraren gastuak.....	2.358,18	Dirulaguntzaren aurrerakina	52.590,85
Errentamenduak	18.777,30	Alderdiaren ekarpena	130.000,00
Profesional independenteen zerbitzuak.....	423,50		
Garraioak	774,40		
Banku zerbitzuak eta antzekoak	96,98		
Publizitatea prentsa-irratian	21.405,38		
Kanpoko publizitatea.....	5.477,43		
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	91.163,31		
Bestelako zerbitzuak.....	25.873,84		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK GUZTIRA	166.350,32	BALIABIDEAK GUZTIRA	182.590,85
Gastu ez subentzionagarriak.....	11.480,70		
GASTUAK GUZTIRA	177.831,02	BALIABIDEAK GUZTIRA	182.590,85
Diruzaintza	4.759,83		
GUZTIRA	182.590,85	GUZTIRA	182.590,85

Langile gastuetatik ekainean eta uztailean zorpetutako 5.788,25 euroren zenbatekoa murriztu da eta gainditu egin da, honenbestez, LOREGen 130. artikuluan ezarritako epea (deialdia egiten denetik hautetsiak izendatzen diren arte).

Gainera, prentsa-irratietan publizitate gastuetan 3.923,43 euro murriztu dira eta 1.769,02 euro beste propaganda eta publizitate batenak, udal hauteskundeetakoak direnak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GIPUZKOAKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Errentamenduak	28.611,37	Dirulaguntzaren aurrerakina	71.302,94
Banku zerbitzuak eta antzekoak	84,30	Alderdiaren ekarpena	200.000,00
Publizitatea prentsa-irratian	29.242,91		
Kanpoko publizitatea	13.504,23		
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	164.160,04		
Bestelako zerbitzuak	15.878,19		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK GUZTIRA	251.481,04	BALIABIDEAK GUZTIRA	271.302,94
Gastu ez subentzionagarriak	11.780,62		
GASTUAK GUZTIRA	263.261,66	BALIABIDEAK GUZTIRA	271.203,94
Diruzaintza	8.041,28		
GUZTIRA	271.302,94	GUZTIRA	271.302,94

Prentsa-irratietan publizitate gastuetan 11.145,37 euro murriztu dira eta 635,25 euro beste propaganda eta publizitate batenak, udal hauteskundeetakoak direnak.

Gainera, “kanpoko publizitatea” kontu-sailean birsailkatu dira “prentsa-irratietan publizitatea”n erregistratutako 4.414,08 euro.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.3 EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE)

PSE-EE(PSOE) alderdiak hiru Lurralde Historikoetan aurkeztu du hautagaitza, hauteskunde-barruti guztietan, eta Lurralde bakoitzeko kontabilitate berezia aurkeztu du.

ARABAKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Publizitatea prentsa-irratian	24.800,00	Dirulaguntzaren aurrerakina	18.416,18
Kanpoko publizitatea	24.800,00	Alderdiaren ekarpena	104.020,34
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	37.912,49		
Bestelako zerbitzuak	34.924,03		
GASTUAK GUZTIRA	122.436,52	BALIABIDEAK GUZTIRA	122.436,52

BIZKAIKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Publizitatea prentsa-irratian	27.647,03	Dirulaguntzaren aurrerakina	33.875,46
Kanpoko publizitatea	27.647,03	Alderdiaren ekarpena	104.494,70
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	29.958,39		
Bestelako zerbitzuak	31.893,64		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak.....	21.224,07		
GASTUAK GUZTIRA	138.370,16	BALIABIDEAK GUZTIRA	138.370,16

GIPUZKOAKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Errentamenduak	2.546,25	Dirulaguntzaren aurrerakina	36.494,52
Publizitatea prentsa-irratian	40.133,28	Alderdiaren ekarpena	191.891,92
Kanpoko publizitatea	21.834,45		
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	92.465,51		
Bestelako zerbitzuak	71.406,95		
GASTUAK GUZTIRA	228.386,44	BALIABIDEAK GUZTIRA	228.386,44



IV.4 ELKARREKIN PODEMOS

Elkarrekin Podemos alderdiak hiru Lurralde Historikoetan aurkeztu du hautagaitza, hauteskunde-barruti guztietan, eta Lurralde bakoitzeko kontabilitate berezia aurkeztu du.

ARABAKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Langileria ez iraunkorraren gastuak.....	8.338,61	Dirulaguntzaren aurrerakina	33.555,01
Errentamenduak	11.272,89	Alderdiaren ekarpena	71.553,99
Profesional independenteen zerbitzuak	38.439,44		
Aseguru primak	283,62		
Banku zerbitzuak eta antzekoak	54,47		
Publizitatea prentsa-irratian	5.043,08		
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	7.443,45		
Bestelako zerbitzuak	8.110,65		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak.....	21.960,90		
GASTUAK GUZTIRA	100.947,11	BALIABIDEAK GUZTIRA	105.109,00
Diruzaintza	4.161,89		
GUZTIRA	105.109,00	GUZTIRA	105.109,00

BIZKAIKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Langileria ez iraunkorraren gastuak.....	22.710,36	Dirulaguntzaren aurrerakina	12.751,85
Errentamenduak	24.548,07	Alderdiaren ekarpena	190.416,39
Profesional independenteen zerbitzuak	29.067,56		
Aseguru primak	283,62		
Publizitatea prentsa-irratian	7.303,36		
Kanpoko publizitatea	1.899,70		
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	11.815,23		
Bestelako zerbitzuak	11.015,90		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak.....	73.985,05		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK GUZTIRA	182.628,85	BALIABIDEAK GUZTIRA	203.168,24
Gastu ez subentzionagarriak.....	1.996,50		
GASTUAK GUZTIRA	184.625,35	BALIABIDEAK GUZTIRA	203.168,24
Diruzaintza	18.542,75		
Administrazio publikoetako zordunak.....	0,14		
GUZTIRA	203.168,24	GUZTIRA	203.168,24

Zerbitzu profesional independenteen kontzeptuko 1.996,5 euroren zenbatekoa murriztu da hauteskunde gastuetatik, udal hauteskundeetako gastua baita.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GIPUZKOAKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Langileria ez iraunkorraren gastuak.....	14.382,99	Dirulaguntzaren aurrerakina	5.475,36
Errentamenduak	7.332,79	Alderdiaren ekarpena	126.985,70
Profesional independenteen zerbitzuak	31.805,04		
Aseguru primak	283,62		
Publizitatea prentsa-irratian	4.985,30		
Kanpoko publizitatea	1.046,65		
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	6.626,48		
Bestelako zerbitzuak	11.726,41		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak.....	49.074,11		
GASTUAK GUZTIRA	127.263,39	BALIABIDEAK GUZTIRA	132.461,06
Diruzaintza	5.197,67		
GUZTIRA	132.461,06	GUZTIRA	132.461,06



IV.5 ALDERDI POPULARRA

PP alderdiak hiru Lurralde Historikoetan aurkeztu du hautagaitza, hauteskunde-barruti guztietan, eta Lurralde bakoitzeko kontabilitate berezia aurkeztu du.

ARABAKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Langileria ez iraunkorraren gastuak.....	6.958,22	Dirulaguntzaren aurrerakina	44.050,48
Errentamenduak	9.909,41	Alderdiaren ekarpena	93.695,88
Profesional independenteen zerbitzuak	6.939,35		
Banku zerbitzuak eta antzekoak	14,40		
Publizitatea prentsa-irratian	29.188,77		
Kanpoko publizitatea	37.379,93		
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	3.215,32		
Bestelako zerbitzuak	28.656,26		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak.....	15.484,70		
GASTUAK GUZTIRA	137.746,36	BALIABIDEAK GUZTIRA	137.746,36

BIZKAIKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Errentamenduak	822,41	Dirulaguntzaren aurrerakina	19.333,48
Profesional independenteen zerbitzuak	16.826,26	Alderdiaren ekarpena	45.403,86
Banku zerbitzuak eta antzekoak	8,10		
Publizitatea prentsa-irratian	10.550,64		
Kanpoko publizitatea	3.282,73		
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	1.128,78		
Bestelako zerbitzuak	23.017,16		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak.....	9.101,26		
GASTUAK GUZTIRA	64.737,34	BALIABIDEAK GUZTIRA	64.737,34

GIPUZKOAKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Errentamenduak	3.714,70	Dirulaguntzaren aurrerakina	4.894,61
Profesional independenteen zerbitzuak	2.332,88	Alderdiaren ekarpena	14.632,02
Banku zerbitzuak eta antzekoak	12,60		
Publizitatea prentsa-irratian	4.234,15		
Kanpoko publizitatea	326,70		
Bestelako zerbitzuak	2.691,04		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak.....	6.214,56		
GASTUAK GUZTIRA	19.526,63	BALIABIDEAK GUZTIRA	19.526,63





Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOAK

ELKARREKIN PODEMOS

“Elkarrekin Podemosek hauteskunde kontu bateratua ireki du hiru lurralde historikoetan eta Araba eta Gipuzkoako Probintziako Hauteskunde Batzordeei jakinarazi dio; ez ordea, Bizkaiko Probintziako Hauteskunde Batzordeari.”


Bakarra:

“2019ko maiatzaren 26ko Batzar Nagusietarako Hauteskundearen Kontabilitatearen Fiskalizazioaren ondorioak” zirriborroa jasorik, eta alegazioak aurkezteko azaroaren 25era arte izanik, adierazpen hauek egin eta giriok aurkeztu nahi ditu.

- 2019ko apirilaren 23an, hauteskundeetarako laguntzaren aurrerakinaren eskaria dela eta, espezifikoki jakinarazi zitzaion Bizkaiko probintziako Hauteskunde Batzordeari hauteskunde kontua.

Aurrekoa intzat harturik:

ESKATZEN DU idatzi hau aurkeztutzat ematea, egindako alegazioekin, eta horien arabera, Elkarrekin Podemosen hauteskunde kontua aurkeztutzat ematea Bizkaiko hauteskunde batzordeari, eta hala jasota gera dadila Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak egingo duen behin betiko txostenean.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



ABREVIATURAS

DF 21/2019	Decreto Foral 21/2019, del Consejo de Gobierno Foral, de 9 de abril, que aprueba la concesión de adelantos de subvenciones por gastos electorales a los partidos políticos, federaciones, coaliciones o agrupaciones electorales que obtuvieron representación en las últimas elecciones a las Juntas Generales de Álava y se presenten a las próximas elecciones a Juntas Generales 2019.
DFA	Diputación Foral de Álava.
DFB	Diputación Foral de Bizkaia.
DFG	Diputación Foral de Gipuzkoa.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
LEJG	Ley 1/1987, de 27 de marzo, de Elecciones a las Juntas Generales de los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.
LOREG	Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, de Régimen Electoral General.
PCAFP	Plan de Contabilidad Adaptado a las Formaciones Políticas y a la Ley Orgánica 3/2015, de 30 de marzo, de control de la actividad económico-financiera de los partidos políticos, aprobado por el pleno del Tribunal de Cuentas el 28 de diciembre de 2018.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.



INTRODUCCIÓN

